

Literatur sarien eta komunikabideen eragina euskal literatur sistemaren barruan

(Influence of literary prizes and the media in the system of Basque literature)

Alegría Susperregi, Alaitz

UPV/EHU. Filologia eta Geografi-Historia Fak. Psikohizkuntzalaritza laborategia. Unibertsitatearen ibilbidea, 5. 01006 Gasteiz

BIBLID [1137-4454 (2006), 22; 63-76]

Jaso: 05.01.12

Onartu: 06.02.07

Lan honetan literatur sariak eta komunikabideek egungo euskal literatur sisteman betetzen duten papera zehaztu eta hauek literatur lanen promozioari begira duten eragina neurtzen saiatu gara. Horretarako, 2004ko Espainiako Sari Nazionalean eta Euskadi Sarietan irabazle suertatutako bi idazle euskaldunen lanek hedabide desberdinetan izan duten zabalkunde mediatikoa ikuspegi sistematikotik aztertu eta konparatu dugu.

Giltza-Hitzak: Literatur sistema. Literatur sariak. Komunikabideak. Literatur kritika. Literatur balentziak.

En el presente trabajo hemos procurado detallar el papel que cumplen los premios literarios y los medios de comunicación en el sistema de la literatura vasca actual y medir su influencia en la promoción de los trabajos literarios. A este fin, hemos examinado y comparado desde un punto de vista sistemático la difusión mediática obtenida por los trabajos de dos escritores vascos que resultaran ganadores del Premio Nacional de España y del premio Euskadi de 2004 en diversos medios de comunicación.

Palabras Clave: Sistema de literatura. Premios literarios. Medios de comunicación. Crítica literaria. Valencias literarias.

Nous avons tenté, dans ce travail, de détailler le rôle joué par les prix littéraires et les moyens de communication dans le système de la littérature basque actuelle et de mesurer leur influence dans la promotion des travaux littéraires. Dans ce but nous avons examiné et comparé depuis un point de vue systématique la diffusion médiatique obtenue par les travaux de deux écrivains basques qui ont reçu le Prix National d'Espagne et le prix Euskadi 2004 dans divers moyens de communication.

Mots Clés: Système de littérature. Prix littéraires. Moyens de communication. Critique littéraire. Valences littéraires.

1. AITZINSOLASA

Aurtengo udazkenean, inoiz baino gehiago agian, euskal literatura izan dugu hizpide, bai euskal hedabideetan eta baita kanpokoetan ere. Edozein literatur tradizioan, eta zer esanik ez gurean, hain eztabaidagarriak izan ohi diren literatur sariak (batez ere batek) ekarri dute azken bi hilabeteetan euskal literatura komunikabideetara. Espainian eta EAEn, urrian banatzen diren Espainiako Narratiba Sari Nazionalak eta Euskadi Sariak, hurrenez hurren, literatur mailan banatzen diren sarien artean oihartzun edo sona dezente, handiena ez esateagatik, izaten duten bi gertakari aipagarri dira. Aldeko nahiz kontrako iritzia topatu arren, ukazina da hauen moduko sari eta lehiaketek literatur sistemaren barruan duten eragina eta aurten gurean nabarmen gelditu da hori; Unai Elorriagak bere *SP-rako tranbia* liburuarekin lortutako Espainiako Sari Nazionalaren inguruan sortu diren kritika, aipamen, laudorio eta polemikak, *%100 Basque* liburuarekin Euskadi Sarietan garaile izan den Itxaro Bordari egin dioten itzal nabarmenari erreparatu besterik ez dugu egin behar horretarako.

Esan bezala, aurtengo honetan, euskal literaturan 1982az geroztik banatzen diren Euskadi Sariaren inguruan esandakoez ez dute zabalpen handiegirik izan hedabideetan edota hau nahiko mugatua izan da Unai Elorriagak izan duenarekin alderatuz gero. Eta ez da harrizkoa idazle honek eman digun bezalako ezusteko pozgarri bat han eta hemen guztion ahotan ibiltzea, izan ere, literatur lan bat norberaren herritik kanpo aipatua eta zer esanik ez, sari-tua izatea, ez da gutxiagorako kontua, are gutxiagorako euskal literatura bezalako literatur minorizatu batentzat.

Baina zergatik halako alde? Zein abantaila du Espainiar Sari Nazionala irabazteak Euskadi Saria irabaztearen ondoan edo zeintzuk dira bata bestea baino aipatuagoa izate horren arrazoiak?

Zalantzarik gabe, honek guztiak, onerako edo txarrerako, baina bere eragina izango du euskal literatur sistemaren barruan. Horregatik, galdera eta burutazio hauei erantzuten saiatzeko gertaera bera ikuspegi sistematikotik aztertzea da lan honen helburua. Horretarako, 1970eko hamarkadaz geroztik edozein literatura aztertzerakoan kontuan hartzen diren eta elkarren eragina duten komunikazio literarioko elementuak hartuko ditugu kontuan: euskal literatur sistemaren kasuan, *produkzioa*, *bitartekaritza*, *harrera*, eta *birsorkuntza* (ik. Olaziregi, M. J., 1999). Hortaz, lan honetan ez da ezer berria gaineratuko, soilik ditugun datuetatik abiatuz eta ikuspegi sistematiko honi jarraituz gertaera hau gure egungo marko literarioan kokatzea da asmoa.

2. KOMUNIKABIDEEN INGURUAN

Ezertan hasi aurretik, bitartekaritza helduko diogu, azken batean, bitartekaritza horren partaide diren –eta egun gure sistema literarioan ezinbes-

teko garrantzia duten– komunikabideetan literatur lanen inguruan egindako aipamen eta kritikak baitira argitaraturiko liburu bat promozionatzeko bitarteko eraginkorrenak. Promozioaren funtzioa berriz, produktua hartzaile kopururik handienarengana iristea denez, hark hartzaileengan eragindako erreakzioaren arabera izango da produktu horrek merkatuari begira izango duen arrakasta, bere kalitatea dena delakoa izanik ere. M. J. Olaziregik dioen moduan, literatur sariak liburu baten promozioaren eragile posibleak badira ere, hauen gabeziatariko bat saritutako lanen inguruan egiten duten zabalpen eskasa¹ da. Ondorioz, promozioari begira, literatur sariak ez dira komunikabideak bezain operatiboak.

Jarraian, azken iritzi hau frogatzen ahaleginduko gara aurtengo Espainiako Sari Nazionalak Euskadi Sariaren ondoan izan duen zabalpena neurtuz. Hala ere, (literatur sistemaren beste elementuetariko bat bezala hartzen dugun eta kritikak bideratzen duen) birsorkuntza sailaren barnean Olaziregik kritika *akademikoa* eta *publikoa* bereizten dituenean, azken honetan sartzen ditu egunkari zein aldizkarietan argitaratu berri diren liburuen harira irakur ditzakegun aipamen, elkarrizketa, kritikak, hain zuzen ere, hemen kontuan hartu direnak. Hortaz, hauek guztiek sistemaren barruan lan bikoitza egiten dute, bitartekari lana betetzeaz gain, birsorkuntzaren barnean kritika publikoaren egitekoa ere betetzen baitute. Ildo horretatik, erraz aurreikus daiteke sistema osatzen duten elementuen arteko komunikazio horretan hedabideek hartzen duten pisua.

Bi sariak izan duten zabalpena neurtu eta aztertzeko egokiena eta objektiboena prentsa idatzira jotzea dela iruditu zaigu, egunkarietara alegia. Lan honetan kontuan hartu direnak hurrengoak izan dira: *ABC*, *Deia*, *Euskaldunon Egunkaria*, *El Mundo*, *El País*, *Gara* eta *La Razón*. Egunkariez gain, *Argia* aldizkarian azken asteetan azaldutako artikulua ere kontuan hartu ditugu.

Lehenik eta behin, egunkari bakoitza ideia eta ideologia jakin batzuei lotzen zaienez, komeni da halako bereizketa bat egitea. Beraz, alde batetik, –nahiz eta batzuek erdaraz idatzi– “euskal komunikabide” deituko ditugunak (*Deia*, *Euskaldunon Egunkaria*, *Gara* eta *Argia*) eta bestetik, “erdal komunikabide” izendatuko ditugunak (*ABC*, *El Mundo*, *El País* eta *La Razón*) aipatuko ditugu. Izan ere, jarraian ikusiko dugun bezala, batzuetan eta besteetan hizpide izan direnak oso bestelakoak izan dira.

3. UNAI ELORRIAGA

Erdal komunikabideetan ageri denarekin hasiz, hauetariko gehienetan U. Elorriaga notizia izan bada, kazetariak idazlea beraren eta sariketaren inguruan sortu nahi izan duten eztabaidagatik izan da. Bada, epaimahaiak hartu-

1. *Larrun* berriki lau euskal idazleri (J. Alonso, H. Cano, I. Estankona eta A. Iturberi) egindako elkarrizketan, idazle hauek saritutako lanak gaizki zabaltzeaz gain, liburuaaren edizioaren kalitatea kaxkarra izaten dela ere aipatzen dute.

riko erabakia politizatu nahian, U. Elorriaga zein Idazleen Elkarteko X. Mendiguren Elizegi editorearen pentsaera politikoen inguruan egindako komentario espekulatiboek² bete dituzte egunkari askotako orrialdeak, baita saria eman zuen epaimahaiak liburu osoa irakurri ez zuela dioten iritziek ere. Salbuespen moduan hartu beharrekoa ordea, *El País* dugu, bertan sariketaren berriaz gain, eleberriaz eta sari honek euskal literatur sistemari begira sor ditzakeen erreakzioen inguruan egindako hausnarketak topatuko baititugu, bestela esan, ikuspegi literario bati loturiko iritzi eta oharrak. *La Razón* egunkariko ale batetan ere, epaimahaikideetariko batek epaimahaiaren erabakiaren inguruan sortutako esamesak salatzeke idatziriko artikulua kalelatu zuten.

Beraz, oro har, eleberriari eta U. Elorriagaren idazkeraren kalitate edota estiloari baino arreta handiagoa jarri diote kazetariak euskaldun bati sari emateak izan duen harrerari eta gertaera horrek literatur sisteman duen balioari. Kontua da, istorio honen protagonista U. Elorriaga izan edo beste idazle euskaldun bat izan, ziurrenik gai politikoari dagokionez, polemika bera sortuko zela.

Euskal komunikabideetan aldiz, berriemaile zein iritzi emaileek ez diote ia kasurik egin kanpoan sortu den zalapartari, hau gaitzesteko ez bada. Ikuspegi literarioagotik aritu dira idazlearen eta bere lanaren inguruan. Bestela ere, sariak U. Elorriagari eta komunikazioek euskal literaturari ekarriko dizkien onurak izan dira hizpide nagusiak. Besteak beste, liburuak Frankfurtuko azokan aipatua izanaren inguruan eta hizkuntza desberdinetara itzultzeko duten asmoa dela-eta liburuak Europa mailan lortuko duen oihartzun eta zabalpenaren ingurukoez aritu dira asko, baita gertaera honek euskal literatur sistemari begira sortu dituen mesfidantza eta zalantzez ere. Gainerakoan, zorionak eta goraipamenak izan dira nagusi.

Esan dezakegu, euskal komunikabideak –*Deia* egunkaria bereziki– erdal komunikabideak baino gehiago interesatu direla saritua bera eta honek idatzitako liburuan. Azken batean, euskal literaturak gerora ere lan onak idatz ditzakeen idazle berri bat aurkitu du, beharbada, saria irabazi izan ez balu, hain kontuan hartua izango ez zena³.

Ezustekoaren faktorea

Modu batera zein bestera, *SP-rako tranbia* liburuak hedabideetan izan duen sona ikaragarria izan da. Dena den, erreakzio hauen zergatia ulertzeko

2. *El Mundo*-n “Elkarrizketaren alde nago” izan zen 02-10-9an U. Elorriagari egin zioten elkarrizketa azaltzen zen orrialderako aukeratu zuten titularra. *ABC*-n berriz, 02-10-11ko edizioan, bezperan idazle bizkaitarrak COPE irratian esan zituenak eta “ez zituenak” ere aipatu zituzten egun horretako editoriala “Adierazpen mingarriak” izenburupean.

3. Gogorarazi behar dugu “Euskal Idazleen Elkarateak” belaunaldi berri batetako autoreak ezagutzera emateko azaroaren 27an martxan jarri zuen erakusketaren barruan U. Elorriaga bera ere hor topatuko dugula.

ez dugu ahaztu behar U. Elorriagaren sariak ustekabean harrapatu gaituela. Jakinaenez, ezustekoa den guztiak sortzen duen harridurazko erreakzioaren inguruan zer esana sortzea errazagoa izaten da eta berria den guztiak erakar-garritasun handiagoa izaten du komunikabideentzat.

Baina ezustekoa zergatik? Lehenik eta behin, euskaldun bat Espainiar Sari Nazionalaren garaile suertatzea ez zuelako askok aurreikusi edo espero, hori orain arte euskal literaturan kanonikoa den euskal idazle bakar batek lortu baitu, B. Atxagak alegia. Bigarrenik, saria bera orain arte ezezaguna zen idazle batek lortu duelako bere lehen liburuarekin. B. Atxaga U. Elorriaga ez bezala, saria jaso zuenerako behintzat idazle gisa ezaguna zen Euskal Herrian eta lan ugari zituen jada kaleratuak.

Berriarekin gustura gelditu ez direnak han eta hemen sua pizten ibili dira, U. Elorriagaren aurka kontu gogorrak esanaz. Beste batzuek aldiz, berriak sortutako harridura eta poza azpimarratu dituzte. Harridura, egoerak berak iradokitzen dituen eta gorago aipatu ditugun ezaugarri ez ohikoengatik (idazle gaztea, lehen liburua, Euskadi Sarietan finalista izan ez dena...) eta poza, idazlea berari begira, euskal irakurleak ez ezik, hizkuntza desberdinetako irakurleak biderkatuko zaizkiolako. Euskal literaturari dagokionez berriz, sariak azken honi nolabaiteko prestigioa eman diolako eta Euskal Herritik kanpo zertxobait ezagunagoa izateko bidea erraztuko zaiolako.

Sariaren inguruko irakurketa desberdinak

Berriak harridura eta ezustekoa sortu badu ere, euskal hedabideetan inork zalantzan jarri ez duena U. Elorriagaren *SP-rako tranbia*-k lortutako sariaren merezimendua izan da. Baina gorago aurreratu bezala, zenbaitek bere zalantzak azaldu ditu Euskadi Sarietako epaimahaiak erabilitako irizpideen inguruan, azken hauek benetako kalitatezko lan bat estimatzeko gai ote diren zalantzan jarriz. Ildo beretik, errekonozimendua kanpotik, Espainiar Estatutik, etorritakoa izateak sortu du oro har, euskal literatur sisteman kudeatzaileenganako mesfidantza⁴. Kontuan izan behar dugu U. Elorriagaren liburuak kaleratu zen urte (2001) bukaerarako jada, 4. argitalpena kalean zuela. Liburuak, idazle gazte eta orain arte ezezagun batena izanagatik ere, oso harrera ona izan du hasieratik euskal irakurleen artean. Orduan, nolatan ez du saria eskuratu aurretik inolako aipamen berezirik jaso? Nola azal daiteke Euskadi Sarietan finalistaren artean hautatua izan ez den idazle gazte baten lana kanpoan saritua izatea? Badirudi, txaloak kanpoko literatur mundutik etorri zaizkigun arte ez garelako konturatu benetan aurrean dugunak duen balioaz.

Irizpide semantikoei jarraituz, *SP-rako tranbia* Euskadi Sarietan ez egotea nolabait azaldu edo ulertzera hurbil gaitetzke. Kontuan eduki behar dugu lite-

4. Ik. J. Gabiriak 02-10-9an *Deia*-n eta J. Alonsok 02-10-11n *Euskaldunon Egunkaria*-n "Seiko Urrea"-n esandakoak.

ratur sari bakoitzak bere estatusa duela eta beraz, hauetariko bakoitza hizkuntza horretako literatur sistemaren, eta bakarrik haren, menpe dagoela, horrek berarekin dakarren guztiarekin. Hori onartzen badugu, lekuan lekuko gizarteko kideek idatzitako lan bati “literatur lan” adiera ematen dion gizarte batek eratu edota araututako balentzien sailak ez du zertan beste gizarte baten berdina izan behar. Aztergai ditugun bi lanak, *SP-rako tranbia* eta *%100 Basque*, literatur sistema berekoak baina eleberri gisa perfil desberdinekoak izanik, lan saridun gisa balentzia desberdinen arabera aukeratuak izan direla ondoriozta dezakegu. J. Kortazarrek⁵ azaldu bezala, hizkuntza egoera diglosi-koa duen gizartean alde ludikoa baino alde epikoa baloratzeko joera izaten da eta *SP-rako tranbia* liburu ludikoa dugu.

Dena den, euskal literatur sistemaren balentziekin bat ez egiteak ez du justifikatzen lehenago liburuaren balioaren inguruko aipamenik egin ez izana. Honen arrazoi posiblea –beste edozein eremutan bezala, literatur munduan ere– aurreiritzietan aurki dezakegu. Idazle gaztea, ezezaguna, bere lehen liburu... lutekeena da ezaugarri horiek U. Elorriagaren lana asko eta askoren eskuetara iristeko bidea tratatu izana edota liburuaz ezagutzera iritsi direnei liburuaren inguruko balorazioak egiteko nahikoa segurtasunik eman ez izana. Azken jokaera posible honen ildotik, merezi du zenbait idazlek euskal literatur kritikaz duen iritzia hona ekartzea. I. Zalduak, Euskadi Irratian (02-12-04ean) kaleratu berri duen bere azken lanaren inguruan egindako elkarrizketan adierazten zuenez, egungo kritikak azalekoak dira. Gehienetan, liburuari egindako laudorioak baino ez dira izaten eta literaturaren ikuspegitik hauek ez diote idazleari laguntzarik ematen. Haren iritziz, kritikak sakondu eta iruzkin positiboak bezala, negatiboak ere lekua egin beharko litzaieke. Euskarak berak osatzen duen eremua txikia izateak, idazle zein kritikak, maila pertsonalean ezagunak izatea dakar berarekin eta horrelakoetan zailagoa izaten da hurbilekoa dugun norbaitek egindako lanari “akatsak” ateratzea. Baina Zalduak adierazten zuen modura, horrelakoetan komeniko litzateke idazlearekiko harremana hark egindako lanarekin ez nahastea.

Azkenik, pentsa dezakegu baita ere, *SP-rako tranbia* lehenago irakurri zutenen artean (hanka sartzeko beldurrez edo) inor ez zela aipamen berezirik egiten ausartu, nahiz eta ez dugun ahaztu behar U. Elorriagaren liburuaz Euskadiko Kritika Sarietan bigarren gelditu zela J. Sarrionandiaren *Lagun Izoztua* liburuak lortutako lehen postutik bi puntura.

4. ITXARO BORDA

Aztertu ditugun egunkarietatik lautan bakarrik ematen zaigu I. Bordak bere *%100 Basque* liburuarekin lortu duen Euskadi Sariaren berri. Horiatariko bakarra da erdal egunkarien taldekoa, *El País*. Hala ere, gainerakoek ere, saria jaso ondorengo egunaz kanpo ez diote tarte esanguratsurik eskaintzen idazle lapurtarrari eta azkeneko honi egindako elkarrizketa edota sarien

5. Ik. Argia “Sp-ren kasua”.

banaketa egunaren iragarpena besterik ez dute eskaintzen⁶. Salbuespen bakartzat jo dezakegu I. Gutierrezek⁷ *El País* egunkarian idatzitako artikulua. Bertan sari honek sortu duen ezustekoa aipatzeaz gain, nolabaiteko hausnarketa luzatzen zaigu sariak eta komunikabideek literatur bitartekari gisa irakurle arruntengan duten eraginaren inguruan. Galdera interesgarriak plazaratzen ditu gainera, jarraian erabilgarri suertatuko zaizkigunak. Baina bestelakoan, idazlearen eta honen azken eleberriaren inguruan nahiko gauza gutxi esan da. I. Bordak literaturan orain arte egin duen ibilbide luzearekin zerbait gehiago esan zitekeen, besterik ez bada, oraingo liburu hau aurretik idatzitakoekin alderatuz.

Ezustekoaren faktorea

Euskadi Saria I. Bordak irabaztea ere ustekabea izan da, aipatu berri dudan I. Gutierrezen artikulua horretan esaten den bezala, literatur ingurukoak ez baitzuten bera jotzen faboritotzat. Beste behin ere, aurreiritzietan aurki dezakegu zergatia. Izan ere, Euskadi Sariarako lehian zeuden gainerako idazleak ez zirela nolana hikoak: J.R. Madariaga, I. Rozas eta J. Sarrionandia. Azken hau gainera, bere *Lagun izoztua* liburuarekin Kritika Sariaren irabazle eta idazle estimatua, bai kaleko irakurlearen aldetik zein literatur mundukoenetik. Azken liburu honek izan duen harrera beroak beste behin ere berretsi du J. Sarrionandiarenganako mirespena.

Hala ere, Euskadi Saria beste norbaitek lortu ez izanak sortutako ezustekoaren oihartzuna ez da U. Elorriagarenak komunikabideetan izan duenaren erdira ere iritsi. Ez da inolako eztabaidarik sortu epaimahaiak lau idazle horien artean I. Borda saritzeko hartutako erabakiaren aurrean eta ez da azaldu gertaera honen ez aldeko eta ez kontrako iritzirik. Isiltasuna izan da nagusi. Zergatik halako jarrera pasiboa? Agian, I. Gutierrezek dioen bezala, askok eta askok irakurria ere ez zutelako? Ezagutzen ez den lan batetaz ezer gutxi esan daiteke, alde zein kontra eta horrelakoetan isilik gelditu eta emaitza onartzea baino jarrera zentzudunagorik ez dago. Bestalde, aurreiritziek gure erabakietan eragina dutela publikoki onartzea ere ez da gauza erraza. Gainera, gorago ere esan dugu, gure sistema literarioko kritika ez dela gehiegi arriskatzen liburuen gainean iritzia emateko orduan. Idazleei dagokionez berriz, zeini interesatzen zaio beste inoren merezimendua zalantzan jartzea, agian hurrengo batean bera orain I. Borda dagoen leku berean egon daitekeela jakinda?

Askotan aurreiritziekin bat egiten duguitsu-itsuan eta halako batean gure eskemetatik kanpo dagoen zerbait gertatzen denean harrapatuta gelditzen gara, hitzik gabe. Hala, prestatuta genuen diskurtsoa alde batera utzi eta beste berri bat inprobisatu beharrean aurkitzen gara.

6. Argia aldizkaria ez diote oraingoz I. Bordari ez U. Elorriagari egin zioten moduko elkarrizketarik ezta bestelako aipamenik ere egin.

7 Ik. *El País* "Itxaro Borda, hau ezusteko pozgarria!" 02-10-21.

Nolanahi ere, espero zitekeen egunkariek eleberriaren balio literarioarekin zerikusia duten kontuak aipatzeaz gain, literatur sistemarekin lotuagoak dauden aipamenak egitea. Izan ere, aurtengo Euskadi Sariaren irabazleak dituen “berezitasunek” ematen dute horretarako aukerarik. Hasteko, Iparraldeko euskal idazle bat saritzen duten lehenengo aldia da eta hori Euskal Herria bere osotasunean kontuan hartzen dugunontzat pozgarria da oso, azken batean Iparraldean euskararen egoera den bezalakoa izanik ere, euskal literatur sisteman serio eta gogotsu parte hartzen duen jendea badela erakusten baitu. Ez dugu ahaztu behar, 1996ko azken datuen arabera⁸, euskal idazleen %8 baino ez dela Ipar Euskal Herrikoa.

Gertatzen dena da, I. Bordak elkarrizketetan adierazi duen moduan, Hegoaldeko batzuetan haietaz ahaztu-edo egiten garela eta alde horretatik, sari hau ondo etorriko da gure literatura Iparraldeko idazleek ere egiten dutela gogorarazteko.

Iparraldekoa izateak gainera, badakar beste kontu bat, euskalkiarena alegia. Izan ere, gurean oraindik euskara normalizazio prozesuan egonik, liburu honek beste arazo edo eztabaida bat plazaratzen digu. %100 Basque euskara batuan idatzita badago ere, lehenengo orrialdetik nabarmena da Iparraldeko kutsua bertako hitz zein egituretan. Hegoaldeko euskaraz bakarrik irakurtzeko ohitura dugunontzat liburua soseguz irakurri beharra eskatzen du.

Beharbada, faktore hau, hegoaldeko irakurleak erakartzeko orduan liburu honek bere aurka duen zerbait da, azken batean, irakurleen gehien-goak liburu bat irakurtzen duenean momentu atsegin bat pasatzea baitu helburu eta ahalegin berezi bat eskatzen duenaren aurrean erosotasunagatik, askoren erabakia liburua ez irakurtzea izan daiteke. Hor ikusten da norbera zenbat emateko prest dagoen. Baina ezin da ukatu badela Hegoaldeko eta Iparraldeko euskararen, batua izanik ere, saihestu ezineko muga bat askok diotenez gero eta sendoagoa bihurtzen ari dena, haiek frantsesera eta guk gaztelarrera jotzeko dugun joera gero eta nabarmenagoa. Hau ekidin ezin dugun arazoa da, azken batean lurraldearekin batera lurraldearen alde batean hizkuntza bat eta bestean beste bat izanik ezin baitugu ihes egin hauen eraginetik. Horren aurrean geure burua kontzientziatu eta jarrera konprometituago bat hartzea beste aukerarik ez dugu. Bestalde, iparraldeko/hegoaldeko zenbat eta liburu gehiago irakurri, orduan eta errazago suertatuko zaigu hain hurbilekoa ez dugun euskarara hurbiltzea.

Baina bada I. Bordak berezkoa duen bete zerbait, emakume izatea. Gure literaturan (1996ko datuak) emakume idazleak %11 baino ez direla kontuan hartzen badugu, aurten emakumeek nolabaiteko protagonismoa izan dutela esan beharrean gaude, lau sarituetatik bi emakumeak izan baitira Euskadi Sariaren aurtengo edizioan, I. Borda eleberrigintzan eta Miren Agur Meabe haur eta gazte literatura sailean. Inork zalantzarik izango balu, honek erakutsiko luke gutxi izanik ere, emakume idazleek ere maila handiko literatura egiten

8. Ik. J.M. Torrealdai *Euskal Kultura Gaur*, Jakin 97 (403 or.).

dutela. Gainera, ez da denbora gehiegi igaro azkenekoz emakume bat saritua izan zenetik, L. Oñederrak 2000.ean irabazi baitzuen narratiba saria. Bide batez, esan dezagun, azken idazle honek agerpen mediatiko adierazgarria izan zuela emakume idazleen onerako. Harritzekoa da beraz, hedabideek gai hau ere ez atera izana hain eztabaidagarria den eta batzuek “emakumezko literatura” deritzoten horren inguruko iruzkin eta eztabaidetarako.

Laburbilduz, Euskadi Sarien emaitzekin ados egon edo ez, harritu hala ez, inork ez du ia ezer aipatu idazle eta liburu honen inguruan eta ondorioz, I. Bordak oihartzun nahiko mugatua izan du hedabideetan, batez ere, U. Elorriagarekin alderatuz gero.

Komunikabideen jarreraren azalpen bila

Komunikabideek U. Elorriaga gehiago aipatzeko izan dezaketen arrazoia Espainiako Narratiba Sari Nazionala irabazteari Euskadi Saria lortzeari baino garrantzi handiagoa eman izana izan daiteke. Azken batean gehienen ahotan ibili diren kontuak lotura handiagoa izan baitute literatur sistemari begira sari horrek (U. Elorriagarenak) berarekin dakarren eta ekarriko duenarekiko ardurarekin lana beraren balorazio literarioarekin baino. Labor esanda, gehiago baloratu da idazlearen inguruko gertaera, honen lana baino. I. Bordaren kasuan berriz, bai sari emateak eta bai bere lanak, biek piztu dute interes gutxi hedabideetan. Hau guztia kontuan izanik pentsa dezakeguna zera da, agian *SP-rako tranbia* erosi duen gehiengoak liburuaren inguruan sortu den zalapartagatik erosi duela eta ez, liburu eta honek dituen ezaugarriak literarioki interesgarri edo erakargarri izan daitezkeela iruditu zaiolako. %100 *Basque* erosi duenak berriz, agian irizpide literarioagoak erabili ditu. Behar bada, I. Bordaren aurreko eleberriren bat ezagutzen zuenez, azken lan honek aurrekoekiko izan ditzakeen loturak edota diferentziak kuriositatea sortu diotelako edota besterik gabe, idazle honen beste lan bat ezagutzea erabaki duelako. Kontua da, aukeraketa norberaren esku dagoela eta horren atzean irakurle mota eta irizpide desberdinak daudela.

Aurtengo gertakaria dela eta, nola ikusiko du hemendik aurrera euskal irakurleak Euskadi Sarien sariketa? Prestigioa galduko ote du? Galdera hauei erantzuteko hurrengo urtean zer gertatzen den ikusi beharko dugu, orduan neurtu ahal izango dugu Euskadi Sariari eman zaien protagonismo eskasean Espainiar Sariari eman zaion protagonismo zabalak zenbaterainoko eragina duen.

5. BI SARITUAK AURREZ AURRE

Idazle bakoitzak bere horretan eta euskal literaturaren barnean dituen ezaugarriak alderatzen baditugu, berehala konturatuko gara batoren eta bestearen artean dauden desberdintasunez. Ildo beretik, saria lortu izanak idazle bakoitzarentzat duen balioa ere desberdina izango da, baita komunikabideek bakoitzari eskaini dion tartearen eragina ere.

Ibilbide literarioari begira, I. Bordaren ibilbide luzea aipatu beharko genuke. Izan ere, idazle lapurtarrak hamabosgarren lana du honako hau eta literaturako alor desberdinetan (poesia, eleberria, saiakera, itzulpengintza) ez ezik, egunkarietan zutabegile modura eta kultur mugimenduetan partaide gisa sarri aritzen da. Beraz, irakurleak badu bere entzuterik idazle zein kultur munduko pertsona gisa, eta horrekin batera, nolabaiteko irudia egin du aspalditik. Hortaz, saria lortu izanak apenas izango du eraginik bere irudian, hau hobesteko ez bada.

Unai Elorriagak berriz, orain artekoan ez du ibilbide literario luzerik izan, hau baitu bere lehen liburua. Aurrekari gisa aipa dezakeguna 1997an “Laztanik sakonena” ipuinari eskerrak *Deiak* antolaturiko “Ortzadar” Ipuin lehiaketa irabazi eta Bilbao Ipuin Biltegia antologian sartu izana da. Behar bada, horregatik zenbaiti ezaguna edo entzuna egin dakiok bere izena. Elkarlanean-go editoreak berak orduan erreparatu omen zion U. Elorriagaren idazkerari. Beraz, ikus dezakegunez, editoreak erakartzeko sariren bat irabaztea beti da lagungarri idazle berri eta ezezaguna argitaletxera iristeko. Honek berretsiko luke egun sari eta lehiaketen aurkako jarrerari dagokionez azken hamarkadan gertatu den aldaketa. Gainerakoan, Bilboko Labayru ikastetxean itzultzaile lanetan aritu eta kritika literario eta saiakera batzuk kaleratu dituen arren, ez du literatur banda edo kultur mugimendu jakin batetan parte hartu eta agian horregatik zen gehienontzat ezezaguna. Hortaz, saria irabaztearekin batera, jendeak bestelako erreferentziarik gabe sortu du bere idazle irudia bere lana edo pertsona bera ezagutu gabe. Goizetik gauera guztion ahotan dabilen idazle “ezagun” izatera pasa da.

Eleberriari begira berriz, lehenago esan bezala, %100 *Basque SP-rako tranbia* baino askoz ere hurbilago dago euskal literaturaren balentzietatik. M. Garmendia epaimahaikideak adierazi zuenez, nahiko lan sailka ezin eta ez ohikoa izanik, denetatik du: fantasia eta errealtatea nahasirik ageri zaizkigu eta nobela psikologiko autobiografiko eta saiakera kritikotik ere badu. Nobela eta saiakera elkartzeko joera⁹, generoei begira, merkatuak hala eskatuta, indarrean dagoela dirudi.

SP-rako tranbia berriz, J. Kortazarrek¹⁰ dioen moduan, euskal narratiba sistemaren barruan periferikotzat har genezake idazleak ez baitu belaunaldi edo talde jakin batekin bat egiteko moduko ezaugarririk eta nobela bere laburtasunean, egituratuta dagoen moduagatik konplexua eta edukiari begira, ludikoa dugu. Hortaz, nobedade moduko zerbait kontsidera dezakegu euskal literaturan.

9. Ik. Larrun aldizkaria.

10. Ik. *EL País* “Sorpresa en el sistema literario” 02-10-09.

6. BI SARIAK AURREZ AURRE

Sariak aurrez aurre jarriz gero, alderdi ekonomikoari begira, narratibazko Euskadi Sariaren garaileak 18.030 euroko saria jasotzen du, 12.020 euro eskura eta 3.005 lanaren aurkezpen katalogoa egiteko eta beste hainbeste eleberria beste hizkuntza batera itzuli eta argitaratzea bideratuko duen hitzarmenagatik. Espainiako Hezkuntza Ministerioak berriz, 15.025 euroko saria eman ohi dio Narratiba Sari Nazionalaren irabazleari.

Egia da, dena den, Espainiar saria jasotzen duten liburuek kanpora begira Estatu mailan zein atzerrian ezagunak izateko aukera zabalagoa dutela. Aurtengo kasuan esaterako, jatorrizkoaz gain, beste zazpi hizkuntzeara itzuli eta argitaratu da liburu saritua. Urtearen amaierarako, galegoz eta katalanez argitaratzea espero da eta gaztelerazko itzulpena berriz, heldu den martxorako. Are gehiago, Elkarlanean argitaletxea *SP-rako tranbia* kroaziera eta serbierara itzultzeko adostasunera iritsi da eta argitaletxe alemaniar bat eta beste italiar bat U. Elorriagaren lana beren katalogoan sartzekoak dira. Beraz, ez da nolana hikoia orain arte liburu honek sortu duen interesa.

Euskadi Sariaren liburu irabazleak ere, hasieratik du kanpoan irakurria izateko aukera antolatzaileek hau bigarren hizkuntza batetan argitaratzeagatik 3.005 euroko ordain saria banatzen baitute. %100 *Basque* I. Borda berak itzuli du frantsesera. Dena den, argi dago atzerrira begira *SP-rako tranbia*-k baino interes gutxiago piztuko duela bi arrazoigatik: bata, egoera diglosikoa bizi duen hizkuntza baten literatur sistema txiki batetaz ari garelako eta bestea, liburua-aren ezaugarri euskal identitatearen gaiaren inguruan egindako kritika eta ironia izanik, agian honek ez duelako hain erraz erakarriko Euskal Herriak bizi duen egoera bera edo antzekoren bat ezagutzen ez duen irakurlea.

7. HARRERA

Komunikabideetan jasotako erantzunari dagokionez, argi ikusi dugu U. Elorriagak presentzia handiagoa izan duela. Nolabaiteko promozio honek kontsumitzaileengan sortutako erreakzioa ere halakoa izan da. Jendeak oso ongi erantzun du merkatuan liburua erosterakoan. Liburu-dendetako erakusleihoetan ez da besterik ikusi eta barnean ere *SP-rako tranbia*-ren ale mordoa izan da irakurle berrien zain. Hedabideetan jaso duen oihartzunak lehendik jasotako harrera beroa oraindik gehiago areagotu du eta Durangoko azokan liburririk salduenetarikoa izan da espero zitekeen moduan.

%100 *Basque*-i buruz berriz, ezin gauza bera esan. Honek –nahiz eta honen salmenta ere ona izan den– irakurleen aldetik ez du halako erantzunik izan eta liburu dendetan ere ez diote hainbesterako protagonismorik eman. Horren aurrean, euskal literatura kontsumitzaileek bi liburuen artean aukeratzekotan, *SP-rako tranbia*-ren alde egin dute. Kasurik gehienetan noski, eta gorago aurreratu bezala, erabaki hau komunikabideek bideratua izan da. Beraz, udazken honetako “boom” argia izan da U. Elorriagaren liburua, nola-baiteko garaitu ezina bihurtu den kompetentzia.

Euskal literatur sistemari begira

Egungo gizarteak funtzionatzen duen modua ikusita, arrazoa dena delako izanik ere, literatur lan batek merkatuan arrakasta izateko arreta mediatico lortu behar du kosta hala kosta. Irakurlearengan deituriko atentzioaren arabera izango da berriz, liburu horrek merkatuan izango duen arrakasta. Horrela, produkzioa merkatuaren esanetara mugaturik gelditzen da. Argitale-
txeek ziurrenera jotzen dute eta beren produktiotik ahalik eta errentagarritasunik handiena lortzeagatik aukeraketa egiterakoan lehentasuna ematen diote merkatuan eraginkorra izango den lanari proiektu berri eta arriskatuena aldeko apustuak egin beharrean. Era berean, idazleak beren sormena neurri batean argitaletxeen eskaeretara moldatu beharrean aurkitzen dira baldin eta beren lana argitaratzea lortu nahi badute. Bestela berriz, erakundeek eskaintako diru laguntzen faltan idazle askok literatur lehiaketetan parte hartu beste aukerarik ez dute. Zortea izanez gero –nahiz eta maiz liburuaren edizioa eta zabalpena ez oso ona izan– editoreren baten interesa piztera irits daiteke. Bestela, kritikaren arreta bereganatzea lortuz gero, hedabideetan oihartzun pixka bat jasoz irakurle batzuegana iristeko aukerak izan ditzake eta baita editoreengana ere.

Hortaz, argi gelditu da hedabideek bitartekari modura harrerari dagokionez, irakurleengan izan dezaketen pisua eta eragina hauen produktua erosteko erabakian. Era berean, zerbaitegatik notizia izatera iritsi eta promozio esanguratsua lortu duten liburuek eta hauek bakarrik dira erosle kopuru handia lortzen dutenak. Behar bada, U. Elorriagak saria eskuratu izan ez balu, protagonismo guztia I. Bordarentzat izanik oihartzun zabalagoa lortuko luke eta honekin lotuta salmenta handiagoak. Kontuan izan behar baitugu kaleko irakurle arruntak literatura eta honen ingurukoen berri, batez ere, egunkarien bitartez jasotzen duela gurean. Oso literaturzalea denak bakarrik jotzen du literatur aldizkari edo bestelako informazio iturrietara. Dena den, kaleratzen diren liburu guztien inguruko informazioa jaso nahi duenak ere ez du aukera handiegirik¹¹. M. J. Olaziregiren hitzetan, euskal literaturak duen hutsune nabarmenena euskal liburugintzari buruzko aldizkari espezializaturik eza da eta adibidetzat, besteen artean, gaztelarazko *Qué Leer* aipatzen du. Horrelako aldizkari batetan argitaratutako liburuen inguruko aipamen eta kritikak bilduz gero, gustu diferentek dituen irakurleria zabal batengana iristea ahalbidetuko litzateke eta horrela argitaratutako liburu guztiek irakurleak erakartzeko aukera bera izango lukete. Gorago esan direnak errepikatuz, antzeko proiektu batek aurrera egiteko, noski, beharrezkoa litzateke gure literatur sistemaren barruan literatur kritika sendo bat izatea.

Gaur egun gauzek funtzionatzen duten bezala, notizia izatera iritsi ez diren liburu on asko eta asko apaletan egotera kondenaturik gelditzen dira irakurle faltagatik, ez baitugu ahaztu behar irakurleak ematen diola liburuari

11. *Susa-literatura.com* web orrira joz gero, ordura arte egunkari eta aldizkari desberdinetan argitaratu diren hainbat libururen, baina ez guztien, inguruko kritikak irakur daitezke. Hortaz, errealitatearen zati baten ezagutza bakarrik lor dezakegu, kritiken zerrendan azaltzen ez diren liburuek irakurlearen kuriositatea bereganatzeko aukera hori galdu egiten dute.

literatur balioa, bestela esan, lan bat ez da literatura izango irakurria ez bada. Irakurleak urtean zehar liburu dendetan erosten ditu liburuak¹², beste literaturetan ohikoak izan ohi diren kanaletan (posta bidezko salmentak, irakurle klubak, eremu handietakoa, kioskoa) euskal liburuak ez dute presentzia handirik. Hauek topatzeko lekurik ziurrena megadenda deritzegun liburu eta disko dendak dira nahiz eta pixkanaka edozein liburu-denda eta eremu handiko dendetan ere gero eta gehiago agertzen ari diren. Beste kanal indartsu bat, liburu azokena da. Urtean zehar herri askotan izaten dira egun gutxi batzuk irauten duten liburu azokak eta zer esanik ez, abenduaren lehenengo astean ospatzen den Durangoko Azoka ospetsua.

Hortaz, irakurleak literatura erostera doanean, liburuaren artean aukeraketa egiterakoan irizpide bakartzat egunkarietan gehien aipatzen den liburua erostearena izan ez dezan argitaratzen diren bestelako lanen inguruko informazioa helaraztea komeniko litzateke. Horrela, aukeraketa objektiboago bat ahalbidetuko litzateke eta ez genuke egun argialetxeetan liburuaren artean gertatzen den polarizazioa aurkituko.

8. ONDORIOAK

Ondorio nagusi gisa zera esan dezakegu, egun edozein idazlerentzat, baina batez ere, gazte eta hasi berrientzat urtean zehar antolatzen diren literatur sari eta lehiaketak nahiko lagungarri direla arrazoi desberdinengatik¹³. Alde ekonomikoari dagokionez, diru saria –batzuek honi garrantzi gutxi eman arren– zenbaitentzat tentagarria izaten da idazteak eskatzen duen denbora luzearen ordainsari gisa. Idazleari begira berriz, honen irudia eta egoari mesede egiten dio eta era berean, honek bere lana nolabait baloratua ikusten du. Azkenik, sari batek irakurleenganako zein argialetxeenganako bidea asko errazten du; lehenengoaren kasuan, idazleari agian argialetxeen interesekin bat egiten ez duen zerbait ezagutarazteko aukera eskaintzen diolako eta bigarrean, ezezagun direnei beren ahalmen literarioa erakusteko balio dielako.

90. hamarkadan erakundeek literatur lanak argitaratzeko diru laguntzak murriztu zituztenetik, nekez topatuko dugu 1975eko Manifestuan azaltzen zen moduko sariketen aurkako jarrerarik¹⁴. Literatur sisteman modu aktiboan parte hartu nahi duenak honen lege eta funtzionamenduari bat egitea beste aukerarik ez du.

Halere, lan honetan frogatu nahi izan den bezala, egun saria jasotzeak izan dezakeen eraginkortasuna neurri handi batean sariak komunikabideetan lortutako oihartzunaren baitakoa da. Ez da nahikoa saria irabaztearekin,

12. Ik. J. M. Torrealdai, *Euskal Kultura Gaur* (631 or.).

13. Ik. Argia "Literatur lehiaketen inguruan", 02-10-20.

14. Ik. J. M. Torrealdai, *Euskal Kultura Gaur* (456-457).

liburu sarituak komunikabideetan lortutako oihartzunak eragin zuzena baitu irakurleen gehiengoak honi egingo dioten harreran eta beraz, liburuak merkatuan izango duen arrakastan.

BIBLIOGRAFIA

OLAZIREGI, J. M. (2002), *Euskal eleberraren historia*, Labayru ikastegia.

TORREALDAI, J. M. (1997), *Euskal kultura gaur*, Jakin.

